



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 187. INFORMAZIO BULETINA

2023ko ekaina



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



2023ko ekaina

## ALBISTEAK

### **Toki-erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.**

**2023ko deialdiak 8.000.000 euroko aurrekontua du, eta deialdiaren xede diren kontratuak Europako Gizarte Funtzarekin kofinantzatu ahal izango dira.**

Ekainaren 2ko EHAAn (104. zk.), 2023ko ekitaldiko laguntzen deialdia argitaratu da, toki-erakundeek gazteak kontratatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren barruan. Deialdi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eta Gazteen Berme Sistemari izena emanda dauden gazte langabeak kontratatzeagatik emango zaizkien laguntzen oinarriak ezartzea eta laguntza horiek arautzea, esperientzia profesionalaren bitartez gazte horien enplegarritasuna sustatzeko neurri gisa.

Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko mankomunitateak, kuadrillak eta udalerrak, edo horien mendeko toki-garapenerako agentziak, baldin eta nortasun juridikoa badute.

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 29an amaituko da.

Informazio gehiago: [2023 deialdirako](#) esteka.

### **Gipuzkoako eta Pyrenees-Atlantiqueseko herritarren artean loturak sortzen lagun dezaketen mugaz gaindiko proiektuak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia.**

**Deialdia Etorbizuna Eraikiz ekimenaren barruan dago eta 150.000 euroko aurrekontua du.**

Ekainaren 9ko GAOn (111. zk.), argitaratu dira dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia, Gipuzkoako eta Pyrenees-Atlantiqueseko herritarren artean loturak sortzen lagun dezaketen mugaz gaindiko proiektuak finantzatzeko.

Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte pertsona fisikoek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, unibertsitateek, udalek, mankomunitateek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 9an amaituko da.

Informazio gehiago: [2023ko deialdia](#) esteka.



2023ko ekaina

## Ministroen Kontseiluak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) adenda onartu du.

Ekainaren 6an onartu da Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren adenda, Europako Batzordera bidaltzeko.

**Adendak** inbertsio eta erreforma gehigarriak jasotzen ditu bultzatzeko, energiaren, nekazaritzako elikagaien, industriaren, teknologiaren eta digitalaren arloan autonomia estrategikoa, enpresen inbertsio jasagarriak, eta alokairurako etxebizitza-parkea.

Aurreikusitako inbertsioen bidez, Espainiako enpresetara eta ekonomiara bideratuko dira honako hauek:

- 7.700 milioi transferentzia gehigarri.
- 2.664 milioi REpowerEU programaren bidez.
- 84.000 milioira arte maileguetan. Horri esker, segurtasun-sare bat ezarri ahal izango da eta inbertsio-zikloa luzatu ahal izango da datozen urteetan.

Guztira, Berreskuratze Planak 160.000 milioi euro mugiaraz ditzake 2021-2026 aldian, Espainiako BPGaren % 12 baino gehiago, 2021-2027 urte anitzeko finantza-esparruko egitura-funtsen 36.700 milioi euroei batuko zaizkienak.

Informazio gehiago:

- **[Aurkezpena](#)** (PDF Gaztelaniaz)
- **[Prentsa oharra](#)** (PDF Gaztelaniaz)

## 113 hautagaitza jaso dira POCTEFA proiektuen 1. deialdian.

**Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) 95,4 milioi euro bideratuko dira deialdi honetarako.**

POCTEFA proiektuen lehen deialdiaren esparruan, 113 hautagaitza aurkeztu dira, eta guztira 130 milioi euro eskatu dituzte. Deialdi honetarako finantza-zuzkidura 95,4 milioi eurokoa da. 755 erakunde bazkidek hartzen dute parte guztira proiektu horietan.

Proiektuetarako EGEFen kofinantzaketa-tasa % 65ekoa da.



2023ko ekaina

Hona hemen EGEFen aurrekontuaren lehentasunen araberako banaketa:

Lehentasuna	Aurrekontua
1. Ezagutzarako eta berrikuntzarako espazio komun bat sortzea	28,0 M€
2. Balio ekologikoak babestea eta sendotzea	30,4 M€
3. Enplegua eta kalitatezko prestakuntza lortzea erraztea	9,0 M€
4. Espazio inklusibo eta sozialki integratu bat eraikitzea	8,7 M€
5. Turismo iraunkorra eta kultura bultzatzea	19,3 M€
<b>GUZTIRA 1. deialdia</b>	<b>95,4 M€</b>

Lehenengo deialdian programatutako proiektuen behin-behineko ebazpena abenduaren lehen astean argitaratuko da.

Informazio gehiago: [POCTEFA](#)rako esteka (gaztelaniaz).



2023ko ekaina

## EUROPAKO DEIALDIAK

### **NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK**

**Bigarren deialdia egin da hidrogeno berriztagarrien proiektu aitzindari eta berezietarako pizgarrien programarako (H2 AITZINDARIAK programa), Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31ko 13:00etan amaituko da.

**Aldatu egiten da 2021eko abenduaren 14ko Ebazpena, administrazio publiko horiek emandako zerbitzuen barruan gazte langabeak kontratatzeko "Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionaleko programa" finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko deialdia onartzen duena, izapide aurreratuaren prozeduraren bidez.** 2023ko ekitaldirako, hirugarren epe bat ezartzen da, 2023ko ekainaren 30etik 2023ko abuztuaren 31ra arte, biak barne.

**Honako hauek aldatzen dira: 266/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko laguntzak ematea onartzen duena, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak gauzatzeko (MOVES III), Europako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan; 1124/2021 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko laguntzak ematea onartzen duena, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoko instalazioak ezartzeko pizgarri-programak gauzatzeko, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan; eta 263/2019 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, ETEetan eraginkortasun energetikoko jarduketetarako laguntzen programa arautzen duena.**

**Aldatu egiten da Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan emisio txikiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta iraunkorra egiteko udalerrientzako laguntzen programaren lehen deialdiko laguntzak ematen dituen Ministro Agindua.**

**Argitara ematen da bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programetarako laguntzen deialdi publikoaren 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneratzea (programa horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).**



2023ko ekaina

**Energia-trantsizioko negozio-eredu berrien proiektuetarako laguntzen lehen deialdia onartu da, «Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - NextGenerationEU» delakoaren esparruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko abuztuaren 1eko 14:00etan amaituko da.

**Energia geotermiko sakona aprobetxatzeko proiektuen bideragarritasun-azterketak egiteko laguntzak emateko lehen deialdia formalizatu da, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren – NextGenerationEU – GEOTERMIA SAKONA Programaren barruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 7ko 13:00etan amaituko da.

**Abenduaren 5eko TES/1233/2022 Aginduan aurreikusitako dirulaguntzen deialdiaren ebazpena ebatzi eta jakinarazteko ezarritako epea luzatu egiten da. Agindu horren bidez, sare ekonomiko, inklusibo eta iraunkorra sortzeko Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta 2022. eta 2023. urteetarako proiektu berritzaileentzako laguntzen deialdia onartzen da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.** Epe hori 2023ko irailaren 16ra arte luzatzen da.

**Energia berriztagarrietan oinarritutako elektrizitatea eta beroa ekoizteko proiektuetarako pizgarrien programaren deialdiarako oinarri arautzaileak ezartzen dira, erregai fosiletan oinarritutako ekoizpena ordeztzeko, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.**

**2021-2023 Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatu Planeko «Zentro Teknologikoentzako Cervera laguntzak» eta «Berrikuntzako Ekosistementzako laguntzak» programetarako Teknologia Garapen eta Berrikuntzarako Zentroak (EPP) laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan; eta apirilaren 26ko CIN/373/2022 Agindua ere aldatzen da, zeinaren bidez onartzen baitira Teknologia Garapen eta Berrikuntzarako Zentroak 2021-2023 Zientzia eta Teknika Ikerketako eta Berrikuntzako Estatu Planeko I+G proiektuetarako eta enpresa-proiektu berrietarako laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak, berreskuratze-planaren esparruan.**

**2022an arte eszenikoen eta musikaren esparruan kudeaketa artistikorako egiturak modernizatzeko laguntza publikoen deialdia egiten da, berreskurapen-, eraldaketa- eta erresilientzia-planaren esparruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 4an amaituko da.

**Urriaren 24ko TES/1152/2021 Agindua aldatzen da. Agindu horren bidez, dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, «Administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionaleko programa» finantzatzeko. Programa horren bidez, gazte langabeak kontratatzen dira administrazio publiko horiek emandako zerbitzuen barruan, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.**



2023ko ekaina

***Aldatu egiten da 2021eko abenduaren 14ko Ebazpena, administrazio publiko horiek emandako zerbitzuen barruan gazte langabeak kontratatzeko "Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionaleko programa" finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko deialdia onartzen duena, izapide aurreratuaren prozeduraren bidez. 2023ko ekitaldirako, hirugarren epe bat ezartzen da, 2023ko irailaren 1etik 2023ko azaroaren 17ra arte, biak barne.***

***Kirol Kontseilu Gorenaren dirulaguntzak eta laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, kirol-turismo iraunkorra sustatzen duten instalazioak eta kirol-espazioak hobetzeko eta optimizatzeko azpiegituren titular diren erakunde publikoei, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Europako funtsen kargura.***



2023ko ekaina

## **BESTE DEIALDIAK**

Europako Gizarte Funtza Plus (EGIF+). Pentsioen Jarraipenerako Europako Zerbitzua ezartzea.

- [ESF-2023-ETS.](#)

Herritartasuna, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak programa. Berdintasuna sustatzeko eta arrazismoa, xenofobia eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko proposamenen deialdia.

- [CERV-LS.](#)

Creative Europe Programa. Europa Sortzailea: komunikabideen atala. Film europarren salmenta-agentek.

- [CREA-MEDIA-2023-FILMSALES.](#)

Europa Globalaren Nazioarteko Auzotasun, Garapen eta Lankidetzarako Tresna (NDICI). Afrika barruko mugikortasun akademikorako plana (MOBAF).

- [NDICI-MOBAF-UN.](#)

Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME). Klusterizazio-deialdiak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- [RESIST.](#) Prozesu eta ekoizpen jasangarrien bidezko erresilientzia Europako automobilgintza-industrian.
- [SILEO.](#) Altzarien eta argiztapenaren sektoreak. Enpresen eraldaketa digitalerako proiektuen 1. deialdia. "Enpresa txiki eta ertainak berreskuratzen eta eraldatzen laguntzea, biharko Europako industriarako".

Horizon Europe berrikuntzako esparru-programa.

- [HORIZON-HLTH-2022-CARE-10-01.](#) Etorkizuneko osasuna.
- [HORIZON-EIC-2021-STARTUPEU-01-01.](#) Startup teknologiko berdeak, enpresa sortu berriak, lehen deialdi irekia. Europako Berrikuntza Kontseilua.





### 2023ko ekaina

- [HORIZON-HLTH-2022-DISEASE-03-01](#). CARDINNOV. Gaixotasun kardiobaskularretan estrategia terapeutiko berritzaileak garatzera bideratutako ikerketa.
- [HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Synergies](#). Ignite NEB. Hainbat ekitaldi, NEB (Europako Bauhaus Berria) ekimen sortzaile eta kulturalaren pizgarriak. Zeharkako deialdia Teknologiaren Europako Institutuak (EIT) sustatutako Berrikuntza eta Ezagutza Komunitate (KIC) batzuei.
- [HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING](#). EIT Manufacturing 2024 deialdia, berrikuntza-proposamenetarako. Europako Teknologia Institutuko Fabrikazio eta Manufaktoretarako Atala (EIT).
- [DT-ICT-10-2018-19](#). Energia-aplikazioen asmakizun erakusgarriak. 2014-2020 aldirako Horizonte Esparru Programatik datorren lerroa.

### SOCPL programa, Gizarte Prerrogatiba eta Berriazko Gaitasunen Lerroak.

- [SOCPL-2023-SOC-DIALOG](#). Elkarriketa sozialaren atala.

### Ingurumenerako eta klimaren aldeko ekintzarako LIFE programa.

- [LIFE-2021-CET-EUCF](#). Energia-trantsizio garbirako CET atala. EUCF hirientzako tresna.

### Europa Sortzailea programa (CREA). Komunikabideen atala (MEDIA). FILMOVE deialdia.

- [CREA-MEDIA-2023-FILMOVE](#). Film europarrak dinamizatzea. Hurrengo epea: 23.07.04.

### Barne Segurtasuneko Funtza (ISF).

- [ISF-2022-TF1-AG-DATA](#). Ekintzetarako laguntzak (AG) 1. Gaikako tresnakoak (TF1). Datu kudeaketaren esperimendazio eta berrikuntza teknologikorako datu-baseak, segurtasuneko erakunde eta azpiegituren Europako sare estrategikoan. Hurrengo epea: 23.07.04.

### COSME programa, ETEen lehiakortasunerako. F2F Health Matters (Osasunaren Garrantzia) ekimena, F2F estrategian (Farm 2 Fork, Baserritik mahaira).

- [F2F Health Matters](#). Elikadura-biokonponbide osasungarrien sektorean berritzaileak diren ETEak nazioartekotzen laguntzea. COSME programan txertatua, ETEen lehiakortasunari buruzkoa. CLUSINT-01-2020. Hurrengo epea: 23.07.05.



2023ko ekaina

Europa Digitala programa. Zibersegurtasuneko Gaitasunen Europako Zentroaren (ECCC) deialdiak.

- [DIGITAL-ECCC-2022-CYBER-B-03](#). Hurrengo epea: 23.07.06.
  - CYBER-RESILIENCE: erresilientzia, koordinazioa eta simulagailuak.
  - SOC: Segurtasun Ekintzetarako Zentroyen gaitasunak indartzea.
  - UPTAKE-CYBERSOLUTIONS: zibersegurtasuneko irtenbide berritzaileak hartzea sustatzea.

Horizon Europe berrikuntzako esparru-programa.

- [6G-SANDBOX](#). Hurrengo epea: 23.07.03. Linea mugikorren hurrengo belaunaldiko (6G) azpiegitura eta funtzionalitate berrietarako lan-lerroa (stream). Proben ingurunea (hondar-kaxa edo sandbox). Sare eta zerbitzu adimendunen (SNS) baterako ekimena (JU). HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-C-01-01.
- [PULSATE](#). Adoptatzaileen erabilera-kasuetarako bigarren deialdi irekia (laserrean oinarritutako fabrikazio gehigarria eta aurreratua). DT-ICT-03-2020. Datuen (DT), informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (ICT).
- [iCapital](#) 2023. Berrikuntzaren Europako Hiriburua sariak. Europako Berrikuntza Kontseilua. HORIZON-EIC-2023-ICAPITAL-PRIZE-02.
  - Kategoria orokorra.
  - Nabarmendu-berrien kategoria (rising).
- [EEN2EIC](#) programa, EENren (Europako enpresa-sarea) eta EICren (Europako Berrikuntza Kontseilua) arteko lankidetzan, emakumezko enpresariei begira. Deialdi irekia berrikuntzako liderrentzat. HORIZON-EIC-2021-EEN-01-01.
- Accelerator, Europako Berrikuntza Kontseiluaren I+G bizkortzeko programa.
  - Aurrez zehaztu gabeko erronka teknologikoak (atal irekia). [HORIZON-EIC-2023-ACCELERATOROPEN-01](#).
  - Erronka espezifikokoak (challenges). [HORIZON-EIC-2023-ACCELERATORCHALLENGES](#).
    1. Biomarkatzaileetan oinarritutako saiakuntza berriak minbiziaren tratamendu pertsonalizatua gidatzeko.
    2. Pandemiak kudeatzeko, aerosolak eta gainazalak deskontaminatzea.
    3. Energia biltegitratzea.
    4. Europako Bauhaus berria (sormen- eta jasangarritasun-ekimena) eta arkitektura, ingeniari-tza eta eraikuntza digitalizatzea deskarbonizaziorako.
    5. Teknologia kuantikoko osagaiak edo material erdieroale berriak.
    6. Teknologia berriak nekazaritza suspergarrirako.
    7. Teknologia eta zerbitzu espazial berritzaileak eta bezeroari bideratuak.



### 2023ko ekaina

- **EDCTP3**. Europako eta Garapen Bidean dauden Herrialdeetako Saiakuntza Klinikoen Elkarte. EBk Saharaz hegoaldeko Afrikarako sustatua. 3. (EDCTP3) Osasun orokorreko ekimen bateratua (JU), gaixotasun infektzioei zuzendua. **HORIZON-JU-GH-EDCTP3-2023-01**.
  1. Trebakuntza-sareak: ikerketa klinikorako bekak.
  2. COVID-19aren pandemiagatik eragin negatiboa jasandako, eta EDCTP2k finantzaturako saiakuntza klinikoak arrakastaz amaitzeko finantzaketa.
  3. Emakumeen eta haurren osasunean dauden esku-hartzeak benetako bizitzan ezartzeko eta ebaluatzeko ikerketa.
  4. Saharaz hegoaldeko Afrikan ebolaren agerraldiei buruzko esku-hartzeak azkar ebaluatzeko ikerketa.
  5. Etika eta arautzeko gaitasuna indartzea.

**Merkatu Bakarraren Programa (SMP)**. Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunarena (COSME). Klusterizazio-deialdiak (SMP-COSME-2021-CLUSTER-01) eta turismo-enpresa txiki eta ertainak (SMP-COSME-2021-TOURSME-01).

- **SUSRUR**. Landa-eremuetako edo urrunduetako turismo-sektoreko ETEen jasangarritasun-proiektuak bizkortzeko deialdia. Hurrengo epea: 23.07.04. SMP-COSME-2021-TOURSME-01.
- **TRACE**. Turismo zirkularreko ekosistema europar baterako ETEen trantsizioa babesteko deialdia. SMP-COSME-2021-TOURSME-01.
- **ETSM2030**. Europako Jasangarritasun Turistikoaren Monitorizazioa. Hurrengo epea 23.07.05. SMP-COSME-2021-TOURSME-01.
- **BioMan4R2**. Biomanufakturaren edo biofabrikazioaren klusterrean berreskuratze eta erresilientziarako programa. Enpresa berritzaileak eraldatzeko laguntzak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.
- **AEC EUROCLUSTER**. Berrikuntza, Teknologia eta Prestakuntza Proiektuak, AECen batutako eraikuntzaren inguruko klusterretan. SMP-COSME-2021-CLUSTER-0.
- **RE-CENTRE**. I+Grako lankidetzaren berriei laguntzea trantsizio ekologiko eta digital bikoitzean, informazioaren teknologien, teknologia berde eta zirkularren, eta altzarien eta etxebizitza-hornikuntza sektoreen artean. Klusterren arteko lankidetzarako Europako plataforma (ECCP). SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

**Europe Aid programa hirugarren herrialdeetako laguntza humanitarioko eta garapenerako.**

- Israel. **EuropeAid/178030/DD/ACT/IL**. Auzotasun-atala. Energia Eraginkortasunari buruzko Israelgo Politika babestea eta etxetresna elektrikoei buruzko EBren araudira hurbiltzea.
- Kirgizistan. **EuropeAid/177230/DD/ACT/KG**. Kirgizistango Gizarte Zibilaren ekimenak babestea.
- Libano. **EuropeAid/177107/DD/ACT/LB**. Auzotasun-apartatua. Libanoko osasunaren lehen mailako arretari laguntzeko EBren programa.



### 2023ko ekaina

- Malawi. [EuropeAid/177396/DD/ACT/MW](#). Giza Eskubideen eta Demokraziaren Atala. Giza eskubideen eta demokraziaren sustapena Malawin.
- Bosnia eta Herzegovina. [EuropeAid/177939/DD/ACT/BA](#). EBra sartu aurreko tresna. Landa-garapenerako laguntza. Bosniako eta Herzegovinako herritarrentzako zerbitzuak hobetzea, dokumentatzeko, identifikatzeko, erregistratzeko eta datuak trukatzeko gaitasuna sendotuz.
- Ekuador. [EuropeAid/176996/DD/ACT/EC](#). Ekuadorko gizarte zibilaren eta giza eskubideen erakundeentzako deialdi tematikoa.
- Artikoa. [EuropeAid/177414/DH/ACT/Multi](#). Artikoari buruzko gazteen elkarrizketak.
- Afrika. [EuropeAid/177759/DD/ACT/Multi](#). Gazteriaren Laborategia: Afrikako Batasunaren eta Europar Batasunaren arteko lankidetzeta.
- Liberia. [EuropeAid/178134/DD/OPR/LR](#). Gizarte zibileko erakundeentzako atala. Liberiarako programa tematikoa.
- Montenegro eta Albania. [EuropeAid/177415/ID/ACT/Multi](#). EBra sartu aurreko tresna. Landa-garapenerako laguntza. Montenegro-Albania. Mugaz Gaindiko Lankidetzeta Programa.
- Ekuatore Ginea. [EuropeAid/177672/DD/ACT/GQ](#). Ekuatore Ginean gizarte zibileko eta giza eskubideen sustapeneko erakundeentzako gaitasunak babestea eta indartzea.
- Afrika, Karibe eta Ozeano Barea. [EuropeAid/177519/IH/OPR/TZ](#). Sukaldaritza Jasangarrirako Konponbideetarako Ikuspegi Integratuko Programa.
- Montenegro. [EuropeAid/177400/DD/ACT/ME](#) EBra sartu aurreko tresna. Landa-garapenerako laguntza. Gizarte zibilari laguntzea tokiko garapena sustatzeko Montenegron.
- Ozeano Barea. [EuropeAid/177228/DD/ACT/Multi](#). Gizarte zibileko erakundeentzako atala. Garapen-eta gobernantza-eragileak Ozeano Bareko uharte-herrialdeetan.
- Ipar Mazedonia. [EuropeAid/178176/DD/ACT/MK](#). EBra sartu aurreko tresna. Abiazio Zibileko Agentziari laguntza ematea hegazkingintzaren segurtasunaren eta babesaren arloan Ipar Mazedonian. Hurrengo epea: 23.07.06.
- Kosovo. [EuropeAid/177773/DD/ACT/XK](#). Auzotasun-atala. Giza eskubideen eta demokraziaren programa tematikoa Kosovon. Hurrengo epea: 23.07.06.

*“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea*